



ITALIERA TARTEKO MAILA 1 ETA 2: HELBURUAK ETA EDUKIAK

TARTEKO MAILA 1. KURTSOA

HELBURUAK

Zein dira 1. kurtsoko helburuak?

Tarteko Mailako 1. kurtsuan ikasleak zera ikasiko du:

- Hizkuntza, agertzen zaizkion ia egoera guztietan erabiltzen, dela eskola esparruan, dela lan edo aisialdi esparruan.
- Egoera horietan egoki ulertzen, elkarrekintzan jarduten, parte hartzen eta adierazten, formaltasun edo informaltasun erregistro estandarrean, ahoz zein idatziz.
- Komunikazioa arindu eta ikasketa errazten duten estrategiak erabiltzen.
- Bere ikasketa eta hizkuntzaren erabilera aztertzen eta hobetzen lagunduko dioten tresnak erabiltzen.

Zer nolako komunikazio-jarduerak egingo dituzte?

Mintzaera-jarduerak izango dituzte, ohiko egoeretan eta gai orokorrei buruz, hizkuntza-errepertorio xume baina zabalarekin, oinarrizko egituraketarekin eta kohesio malgu samarrarekin.

- Ezagunak diren gai sorta zabalari buruzko elkarrizketa ez-formalei ekin (adibidez familia, zaletasunak, lana, bidaiak, gertakizuna), informazioa trukatzuz eta iritziak, arrazoiak eta erantzunak emanez.
- Arazo edo kontu praktikoei buruz aritzerakoan (esate baterako jardueraren bat planteatzea edo zerbait egiteko urratsak erabakitzea) edo arazoren bati irtenbidea emateko orduan, iritziak, zalantzak, baldintza, adostasunak, desadostasunak edo erantzunak ematen dituenean esaten duena ulertarazi.
- Hain ohikoak ez diren egoeretan ere ondo moldatu, adibidez, bidaietan, saltegian, turismo bulegoetan, banketxeetan, postan.
- Kexua edo erreklamazioa aurkeztu.
- Informazio bakun eta erraza errepikatu eta helarazi, komunikazio-egoera kontuan hartuz.
- Pertsonaiak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta lekuak deskribatu.
- Gertaerak, iraganeko bizipenak eta etorkizunerako asmoak azaldu, elementuak jarraian kokatuz.
- Aurrez prestatutako aurkezpen edo azalpenak egin, eta gaiari lotutako galderari erantzun.

Idatzizko jarduerak: ezagunak diren gaien inguruan testu errazak baina egokiak eta koherenteak sortuko dira, idatzizko hizkuntzaren araubideak errespetatuz, hizkuntza-errepertorio bakuna baina zabala erabiliz, eta antolaera eta kohesio xume baina eraginkorra izanik.

- Gai ezagunen inguruan galdetegi erantzun eta eskemak bete.
- Solaskide zehatzei oharrak, postalak eta gutun pertsonalak idatzi, kontaktuan jartzeko, zoriontzeko, barkamena eskatzeko eta bizipenak, sentimenduak eta gertaerak azaltzeko.
- Gutun formalak idatzi, aurretik emandako ereduak jarraiki.
- Interneta, faxa edo posta erabiliz, ikasi nahi den hizkuntzako jatorrizko ikasleekin, edo interes berberak dituen jendearekin, komunikatu.
- Kontakizun eta azalpenak egin, labur eta errazak baina ongi egituratuak.
- Inguruko kontuak deskribatu eta komentatu (jendea, lekuak, ikasketak, interesak).
- Txosten arrunt eta laburrak prestatu.

Entzumeneko ariketak, mezu eta hizketa argiekin, hizkuntza normalduan eta eguneroko gaiei buruz: lana, ikasketak, aisialdia. Zati bat edo beste errepikatzea eskatu ahal izango da.

- Zuzentzen zaizkion hizketaldiei jarraitu eta inguruan gertatzen diren truke formal eta ez-formalak dezente ulertu, gai orokorrei edo bere esparruari buruz eta argi artikulatuak direnean, eta informazio-hutsuneak kontrolatzerik dagoenean.
- Informazio erraza bildu eta eguneroko zereginetan ondo moldatu. Jarraibide zehatzei segitu.
- Kontakizunak ulertu, argumentuaren haria eta pasarte esanguratsuenak hauteman.
- Ezagunak diren gaiei buruzko berbaldi laburretan egitura orokorra eta ideia nagusiak ulertu, argi ahoskatuta eta hizkuntza estandarrean direnean.
- Ezagunak diren gaiei buruzko hitzaldi erraz batean puntu garrantzitsuenei buruzko oharrak hartu.
- Irudiaren laguntzaz jarraibide tekniko errazak ulertu, hala nola tresna baten erabilera edo muntaketa.
- Publizitate-iragarkien edukia antzeman, irudiaren laguntzarekin.
- Ezagunak diren gaiei buruzko telebista-saioei jarraitu (albistegiak, erreportajeak, filmak, laburmetraiak). Ezagunak diren gaietan edo aurreikus daitezkeenetan, telebista-saioaren pasarte laburrak ulertu eta funtsezko informazioa atera.

Irakurmenerako ariketak, benetako testu errazekin, testuinguru batean kokatuak, eta gai orokorrei buruzkoak.

- Gutun pertsonalak eta ohikoak diren gutun formalak (informazioa edo azalpenak eman eta eskatu, erreklamatu, jaso dugula adierazi, eskertu...), mezuak, posta elektronikoak, SMSak... ulertu eta komunikazio-asmoa antzeman.
- Gertakizunen, sentimenduen eta nahien deskribapena ulertu, lagunekin posta-harreman iraunkorra izateko moduan.
- Bere bizipenei orokorki edota zehazki lotuta dauden testuak, benetakoak baina errazak, irakurri eta dezente ondo ulertu.
- Testu luzeetan informazio zehatza aurkitu eta jatorri ezberdinetatik datorren informazioa bildu lan jakin bat burutzeko.
- Interneten informazio zehatzak bilatu eta aurkitu, aurretik emandako web orri eta helbideen bidez.
- Ezagunak diren gai orokorretan kazetaritzako artikulua edo albiste bakun baten puntu esanguratsuak antzeman.
- Diskurtso baten argumentazio-eskema antzeman.
- Argi artikulatuta dagoen argudiozko testu baten konklusioak identifikatu.
- Norabait joateko, ariketa fisikoak egiteko, errezeta bat prestatzeko, joko bat egiteko, aparailu bat erabiltzeko edo zerbitzu bat eskuratzeko jarraibideei segitu.
- Argi idatzitako arauak ulertu (segurtasunari buruz, ikasgelako jokaerei eta ardurei buruz, bidaietarako kontseiluei buruz, etab.).

EDUKIAK

Zer funtzio ikasi behar dituzte?

1. Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agur eta adio esan, bere burua aurkeztu, norbait aurkeztu, lagun edo ezezagun bati zuzendu, baimena eskatu, barkamena eskatu, eskerrak eman, zoriondu edo norbaiti jaramon egiteko esan.
- Pertsonenganako interesa erakutsi, informazio baten aurrean esamolde eginekin zuzen erantzun.
- Beste ohiko erabilera batzuk: oparitu, gonbidatu, ongietorria eman, gertakizun batzuetan esamolde sozialak erabili (dolumina/zoriona adierazi...).
- Adostasuna eta desadostasuna, aukera, premia edo premiarik eza, ziurtasuna, betebeharra, egiteko ahalmena, asmoa, lehentasuna, gustua/disgustua eta oroitzapenak adierazi.
- Aurreko ekintza guztiei buruz galdetu.
- Laguntza eskatu eta eskaini, gonbitea luzatu eta onartu, iradoki, iradokizuna onartu/errefusatu, eta baimena eman eta eskatu.

2. Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu: ulertu ez dela adierazi, zerbait berriz esateko, letraka esateko edo argitzeko eskatu, astiroago hitz egiteko eskatu, ezagutu edo ulertu ez diren hitzei edo esamoldeei buruz galdetu.
- Berbaldia ulertzen dela adierazi, argipenak eskatu, parafraseatu, hutsak zuzendu, baieztatu.
- Ulertu ez duen ikaskide bati zerbait azaldu edo itzuli.
- Ondo ulertu ote den baieztatzeko eskatu.

3. Informazio orokorra:

- Beste pertsonaren bati buruzko informazioa eman eta eskatu: izena, adina, abizenak, egoera zibila, naziotasuna, lanbidea, telefono zenbakia, helbidea, posta elektronikoa, trebetasunak, zaletasunak, nahiak.
- Ordutegiei, salneurriei, datei, jakiei, tokiei (eskola edo bizilekua), kopuruei, gauzei edo jardueri buruzko informazioa eman eta eskatu.
- Gauzak, pertsonak eta lekuak identifikatu.
- Zerbait norena den galdetu eta esan.
- Pertsonak, nortasuna eta ezaugarri fisikoak deskribatu.
- Zerbait non eta noiz gertatuko den azaldu.
- Ohiko ekintzak edo egungoak aipatu.
- Iraganeko gertaerak edo jarduerak aipatu.
- Iraganeko eta oraingo jarduerak lotu.
- Asmoei eta proiektuei buruz jardun.
- Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- Eguraldiari buruz hitz egin.
- Gauzak lekuan mugatu eta kokatu (objektuak ikasgelan, etxean, hirian).
- Zerbait edo norbait gertu edo urrun dagoen adierazi.
- Iraganeko edo asmatutako gertakari bat kontatu eta hari buruz galdetu.
- Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza adierazi.
- Etorbizuneko edo balizko ekintzaren bat aipatu.
- Azalpenetan gertaerak zenbatu.
- Informazioa errepikatu eta helarazi.
- Informazioa lotu (zergatia, ondorioa, baldintzak).
- Laburtu (pelikulak, liburuak...).
- Hitzak eta esamoldeak definitu.
- Gertaera baten berri ez duela edo baduela adierazi.
- Iragarpenak egin eta gauzen berri eman.
- Denbora sekuentziak adierazi.
- Informazio-azalpenak eman.

4. Iritziak eta balorazioak

- Ezagutzen den ala ez galdetu eta adierazi.
- Gauzak, lekuak, egoerak eta ekintzak alderatu.
- Zalantza adierazi.
- Adostasuna edo desadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde edo kontra azaldu.
- Lehentasunak, gustuak, atsegina eta interesak adierazi eta horiei buruz galdetu.
- Iritzi edo jardueraren bat justifikatu.
- Zergatiak, helburuak eta ondorioak azaldu.
- Zerbait egiteko baldintzak adierazi.
- Gertaeraren bat neurtu (erraza, daitekeena).

5. Osasun egoerak, sentsazioak eta sentimenduak

- Sentsazio fisikoei buruz (hotza edo beroa, logura, gosea, egarria, zaporea, nahieza edo atsegina) informazioa eskatu eta eman.
- Hobekuntzak eta okerragotzeak adierazi.
- Aldarteari eta horren arrazoiei eta ondorioei buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.
- Sentimenduak adierazi: poza, tristezia, kezka, beldurra.
- Besteen sentimenduen aurrean egoki erantzun.

6. Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Gauzak eta zerbitzuak eskaini eta eskatu, onartu eta errefusatu.
- Aholkuak eta aginduak eman eta eskatu.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.

- Laguntza eskaini eta eskatu, onartu eta ukatu.
- Zerbaitera gonbidatu edo hori eskaini, onartu eta errefusatu.
- Zerbait egitera bultzatu.
- Argibideak eskatu eta eman (helbideak, lekuren batera iristeko).
- Laguntza eskatu.
- Zerbait egiteko asmoari buruz, nahiari edo erabakiari buruz, informazioa eskatu edo eman.
- Komunikazio-egoera berebean eskaera bat helarazi.
- Zerbait egiteko aukera, ezintasuna eta beharra adierazi.
- Debekua adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunei erantzun.
- Hitzordua lotu, norbaitekin lotu.
- Telefono bidezko oinarrizko elkarrizketak izan: komunikazioa hasi, norbaiten galdea egin, solaskideari itxaron dezan eskatu, entzuten edo ulertzen den adierazia, agurtu, etab.).
- Norbait zerbait egitera bultzatu.

7. Diskurtsoaren antolaketa

- Norbaiti zuzendu.
- Berbaldia hasi eta amaitu.
- Gairen bat ekarri.
- Elkarrizketa edo eztabaida bat antolatu: iritzia adierazi, adibideak ipini, bere buruari hutsak zuzendu, zalantzak izan, laburbildu.
- Elkarrekintzan jardun: iritzia eskatu.
- Elkarrekintzan erantzun: berbaldi baten hariari jarraitzen zaiola erakutsi.
- Diskurtso baten zatiak lotu.
- Diskurtsoa kohesionatu (denborazko kohesioa, beharrezkoak ez diren errepikapenik gabe erreferentea gorde).
- Telefonoz jardun: erantzun, norbaiten galdea egin, itxaroteko eskatu, entzuten duten galdetu.
- Eskutitz eta mezuetan egitura egokia eta formaltasun edo ez-formaltasun maila egokia erabili.
- Erabiltzen diren testu/diskurtsoetan egokiak diren araubideak erabili.

Nolako testuak irakurriko dituzte?

Irakurtzen diren testuek helburu zehatza dute, lan zehatzen testuinguruan.

- Mezu pertsonal edo sozialak (SMSak, posta elektronikoak, gutunak, oharrak), ohiko esamoldeekin.
- Eskolan, lanean edo aisialdian (hotel batean izena emateko, edo Europar Batasuneko ez den herrialde batean sartzeko) galdetegiak edo inprimakiak.
- Gizarte testuak, esalmode estandarizatuekin: zorionak eman, gonbidatu, onartu/errefusatu, eskerrak eman, mesedea eskatu, barkamena eskatu.
- Seinaleak eta kartelak.
- Jarraibideak eta araubideak.
- Iragarki publikoak eta oharrak.
- Posterrak, publizitate iragarkiak.
- Liburuxkak eta gida turistiko eta komertzialak.
- Prezioen zerrendak.
- Ordutegiak.
- Fakturak, txartelak, irrati, telebista, zinema eta antzerki programak, mapak.
- Telefono-zerrendak, agendak, aisialdirako gidak, katalogoak, hiztegiak.
- Web orriak.
- Errezetak.
- Ikasle atzerritarrentzako egunkari eta aldizkariak.
- Komiki errazak.
- Abestien hitzak.
- Horoskopoak.
- Eleberriak.

Nolako testuak entzungo dituzte?

Entzuten diren testuek helburu zehatza dute, jardun zehatzen testuinguruan.

- Aurrez-aurreko elkarrizketa ez-formalak eta elkarrekintza formalak.
- Informazio-trukeak.

- Esparru ezagunei lotutako mezu eta azalpenak (informazio pertsonala, kurtsoak, ikasketak, lana, aisialdia eta berehalako premiak).
- Aurkezpenak, deskribapenak eta testuinguruan kokatutako kontakizun errazak.
- Erantzungailuko mezuak.
- Informazio eta iragarki publikoak geltokietan, aireportuetan, musika emanaldietan, kirol ikuskizunetan, etab.
- Telefonoko informazioa: eguraldia, zirkulazioa eta ordutegiak.
- Irrati eta telebistako informazioa zirkulazioari eta eguraldiari buruz.
- Informazio turistikoa (audiogidak).
- Publizitate testuak (irratia, telebista, supermerkatua, etab.).

Nolako testuak sortuko dituzte?

Sortzen diren testuek helburu zehatza dute, lan zehatzen testuinguruan.

Hitz egiteko

- Ohiko gizarte harremanak (agurrak, adioak, aurkezpenak, barkamenak, eskerronak) eta gertakizun berezietakoak (goraipamenak, laudorioak, etab.).
- Zorionak, gonbidapenak, gizalegezko esamoldeak.
- Aurrez-aurreko elkarrizketa ez-formalak eta elkarrekintza formalak.
- Informazio-trukeak.
- Elkarrizketak: informazioa, ondareak eta zerbitzuak hartu eta eskaini, eta arazoak konpondu.
- Mezuak, deskribapenak eta kontakizunak errepikatu eta helarazi.
- Galderak eta adostasun eta desadostasuneko adierazpenak.
- Emozioen adierazpena: beldurra, zoriontasuna, atsegina, atsekabea, lehentasuna, ustekabea.
- Pertsonak aurkeztu eta deskribatu: bizilekua, lana, egoera, zaletasunak eta interesak.
- Iraganeko eta egungo jardueren kontakizuna.
- Asmoak eta proiektuak aurkeztu.
- Intereseko gaiari buruz, aurrez prestatutako aurkezpenak.
- Argudiaketa errazak.

Idazteko

- Bizipenak, gertaerak, benetako edo asmatutako gertakizunak.
- Pertsonaiak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta lekuak deskribatu.
- Asmoen eta burubideen deskribapena.
- Argudiatzeko edo iritzia emateko testu laburrak.
- Biografiak.
- Curriculum vitaeak.
- Errezetak eta argibide errazak.
- Konpromisoak eta arauak.
- Enplegu-eskaerak.

Zer gai landuko dituzte?

- Nork bere burua identifikatzeko
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua
- Eguneroko bizimoduko jarduerak
- Denbora librea eta aisialdia
- Bidaiak
- Giza eta gizarte harremanak
- Osasuna eta zainketa fisikoa
- Hezkuntza
- Erosketak eta merkataritza-jarduerak
- Elikadura
- Ondasunak eta zerbitzuak
- Hizkuntza eta komunikazioa
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena
- Zientzia eta teknologia

Nolako atazak egin behar dituzte?

Bidaiak:

- o Italiara bidaiak birtual bat prestatu: ibilbidea, hotela, parte hartzaileak, garraiobideak, datak, jardura kulturalak, etab.

Giza eta gizarte harremanak:

- o Eduki zabaleko aldizkari bat egin.

Kultura:

- o Eleberri baten kritika egin.

Zer gaitasun eskuratuko dituzte komunikazio-jarduerak gauzatzen jakiteko?

Gaitasun pragmatikoak**Egoerari egokitu: erregistroa**

- Mezua ulertzeko eta sortzeko egoera eta testuingurua kontuan hartu.
- Formaltasun maila (publikoa edo pertsonala) eta mintzakidearekiko hurkotasuna (trataera, keinuak, jarrerak) antzeman eta erabili, estandarra denaren baitan.
- Ohiko egoeretan, ikasten den kulturaren baitako araubideen arabera aritu eta erantzun.
- Informazio egokia eskaintzeko, elkarbanatzen den informazioa kontuan hartu.

Ideien koherentzia eta antolaketa testu motaren arabera:

- Aurrean ditugun edo sortzen ditugun testuaren ezaugarri, antolaketa eta formatuari egokitu.
- Testuaren antolaera grafikoa kontuan hartu beraren eraketa antzemateko edo gauzatzeko, eta atalak, zerrendapenak eta azpimarratuak hautemateko eta seinalatzeko.
- Ideiak koherentziaz antolatu (denboran, espazioan eta logikan).
- Komunikazio-asmoa betetzeko informazio aski, eta aski adierazgarria, eskaini.

Lotura eta erreferentzia errekurtsuak. Hitz-jarioa:

- Diskurtsoaren aurreratzea adierazteko diskurtso-markagailu eta intonazio egokiak erabili.
- Mezua xedatzeko denborazko eta lekuzko esamoldeak erabili.
- Beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesti ordezkapen-errekurtsuak erabiliz (elipsia, izenordainak, adberbioak).
- Lokailuak eta puntuazio-zeinuak malgutasun dezenterekin erabili.
- Zerbait intonazioaz edo marka grafikoz indartu.
- Testuaren denborazko koherentziari arreta egin.
- Estrategia egokien bidez mailari dagozkion testuak erraz ulertzera entrenatu.

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntza bat erabiltzeak beronen dimentsio soziala ulertzea eta barneratzea dakar, eta baita dimentsio sozial hau praktikan gauzatea ere. Alor soziokulturalek (hala nola ordutegiak, ohiturek, jaiek, aisialdirako jarduerak, errituek, gizarte egiturak, historiak...) bere baitan balioak, sinesmenak eta portaerak jasotzen dituzte eta horien azpian errealitatea barneratzeko era bereziak daude. Horietara egokitzeak kulturen arteko gaitasun aberasgarria emateaz gain, ikasi nahi den hizkuntzako herrialdean eta kultura horretako herritarrekin egoki jokatzeko laguntzen du.

Gizarte harremanak: formaltasuna/informaltasuna, tartea/hurbiltasuna, hierarkia

- Egoera bakoitzari dagokion gizarte esamolde egokia erabili.
- Ezezagunekin elkartzerakoan kulturari dagokion jokabidea (jarrera, begiradak, tartea, eguraldiari buruzko galderak, isiluneak) eta hizkuntza erabili.
- Bere kulturaz besteko keinuen esanahia ezagutu (eskua eman, musuak, tartea, begiei begiratu ala ez) eta erabiltzen hasi.

Hizkuntza estandarra eta aldaerak

- Egoera formala eta informala bereizten jakin eta kultura horretan ohikoa den jokamoldera egokitzen jakin.
- Erabiltzen diren iturrietan ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko berezitasunak ezagutu.

Kultura-erreferenteak

- Ohikoa den interferentzia baten zentzu bikoitza edo esanahi itsusia ezagutu.
- Eguraldiari buruzko esamoldeen balio zehatz edo erlatiboa ezagutu.

- Beste kulturalen iraingarriak edo tabuak izan daitezkeen alde eta adibide ohikoenak ezagutu.
- Ohikoak diren esamolde edo esapideen esangura zabala ezagutu.
- Oso ohikoak diren esamoldeen esanahi bikoitza ezagutu.

Hizkuntza-gaitasuna

Fonologiako, ortografiako eta gramatikako hizkuntza-gaitasunak komunikatzeko bitartekoa dira, eta haien erabilera barne hartzen duten zereginen bitartez barneratzen dira.

Perpaus bakuna

Aspektuzko aditzeko perpausak (*cominciare a, smettere di*, etab.)

Quanto, come, etab. elementuez hasten diren harridurazko perpausak eta horietan subjektua non kokatzen den.

Preposiziodun elementuez (adibidez *con chi vai*) hasten diren erabateko galderazko perpausak.

Perpaus konposatua

*Di-*z hasten diren menpeko esaldi konpletibo implizituak (*credere/pensare* + infinitiboa).

*Che-*z hasten diren menpeko konpletibo esplizituak (*mi piace/non mi piace che* + subjuntiboa; *credere/pensare che* + indikatiboa/subjuntiboa; *bisogna* + infinitiboa).

Mendeko baldintzazkoak:

- Errealitatearen alegiazko aldia (I. Mota): *Se farà bel tempo andrò in spiaggia.*

- Errealitatearen alegiazko aldia (II. Mota): *Se facesse bel tempo andrei in spiaggia.*

- Lokailu hauen bidez hasten direnak: *Se, purché, a condizione che, dato che, visto che, dal momento che, poiché, siccome.*

Mendeko kausazkoak:

- Lokailu hauen bidez hasten direnak: *dato che, visto che, dal momento che, poiché, siccome.*

Izenak eta adjektiboak

Italieraren eta espainieraren genero gramatikalen arteko aldeetan sakontzea.

Generoaren aldaketak zalantzak eragin ahal dituen izenak (Ad. *poliziotto, sindaco*, etab.).

Adjektibo kalifikatzaileak: konparazio-graduan eta gradu superlatiboan irregulartasunak (*supremo, ottimo, massimo*): adjektibo kalifikatzaileen substantibazioa.

Mugagabeak: aurretiaz ikusitakoa sendotu eta zabaldu (*qualsiasi, qualunque*)

Adjektibo kalifikatzailearen kokapenaren ikasketa sendotu.

Adjektiboaren gradua (konparatiboa, superlatibo absolutua eta erlatiboa)

Konparatiboa eta superlatibo irregularra (Ad. *buono, cattivo*, etab.)

Bello eta *buono* adjektiboen formak eta erabilerak.

Determinatzaileak

Artikuluak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi: artikulua aipatzen ez den kasuen aurkezpena (Ad. *Giorni della settimana, stagioni*, etab.) / Izena aldatuta daukaten edutezkoetan artikulua aurrean erabiltzen den kasuen adibideak (Ad. *La mia sorellina*, etab.)

Erakusleak: aurreko urteetako edukiak berrikusi.

Edutezkoak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Zenbatzaileak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / Zenbatzaile biderkatzaileen aurkezpena (*singolo, doppio*, etc.). / Zenbatzaile kolektibo batzuen aurkezpena (*paio, decina, centinaio*, etc.)

Mugagabeak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / *Molto, poco, tanto, troppo*: horien adjektibo-funtzioa berrikusi. / *Nessuno, qualche, alcuni, ogni, ciascuno*: erabilera eta esamoldeen aurkezpena. / Kopuru mugatua adierazteko artikuluen aurkezpena (Ad.: *del pane*) / *Altro*: erabilera eta adjektibo-funtzioa.

Galdetzaileak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Izenordainak

Pertsonalak: aurreko urteetako edukiak berrikusi (OZ, ZO, subjetoaren arabera forma tonikoak eta atonoak, aditzaren araberrako kokapena) / *CI* eta *NE* partikulak nola erabiltzen diren berrikusi eta sendotu / Izenordainak nola elkartzen diren, ikasketa sendotu.

Erakusleak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / *Stesso* aurkeztu eta nola erabiltzen den ikusi.

Mugagabeak: aurreko urteetako edukiak berrikusi / *Molto, poco, tanto, troppo*: izenordain-funtzioak berrikusi. / *Tutto*: nola erabiltzen da eta ze funtzio dauka (*tutti/e e +* numeroa, egitura) / *Nessuno, qualcuno, alcuni, ognuno, ciascuno, uno, qualcosa, certi, chiunque* aurkeztu.

Erlatiboak: aurreko urteetako edukiak berrikusi eta sakondu (*che* eta *cui* aldazekin; *il/la quale, l/le quali* aldakorrak) / *Cui* izenordain erlatiboaren funtzio genitiboaren aurkezpena (Ad. *il cui, la cui*, etab.)

Edutezkoak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / Edutezko izenordainen funtzio substantibatzaile batzuen aurkezpena (Ad. *I miei*, etab.).

Indikatiboa: - lehenaldi burutuaren morfologia eta erabilerak (*Passato prossimo*) (forma erregular eta irregularrak)

- lehenaldi burutugabearen morfologia eta erabilerak (*Imperfetto*) (forma erregular eta irregularrak)

- lehenaldi pluskuanperfektuaren morfologia eta erabilerak (*Traspassato prossimo*) (forma erregular eta irregularrak)

- geroaldi bakunaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak) eta modu-erabilerak berrikusi

baldintza: - baldintzako modu bakunaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak)

agintera: - aginteraren morfologia eta erabilerak

Honako aditz-forma hauen aurkezpena:

indikatioa: - iraganaldi mugagabearen morfologia ezagutu (*Passato Remoto*)

baldintza: - baldintzako modu konposatuaren morfologia eta erabilerak (forma erregularrak)

agintera: - forma pronominalen morfologia eta erabilerak (izenordainen kokapena)

subjuntioa: - orainaldiaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak)

- lehenaldiaren morfologia eta erabilerak (*Passato*) (forma erregular eta irregularrak)

Partikula pronominalak dituzten aditzak (*cavarsela, andarsene, farcela*, etab.)

Forma pasiboaren aurkezpena: *essere* aditz laguntzailearen erabilerak.

Adberbioak

Aurreko urteetako edukiak berrikusi: ohikoenak diren adberbioak eta adberbiozko lokuzioak. / *-mente -amente* modura eratorritako moduzko adberbioak (*-le -re* amaitzen diren adjetiboetatik eratorritakoak barne)

Denbora konposatuetan adberbioak nola kokatzen diren sakondu.

Adberbioen mailaketa berrikusi:

Aldaketa (*benino*, etab.)

Mailaketa (*migliore*, etab.)

Lokailuak

Aurreko urteetako edukiak berrikusi: silaba bakarreko eta askotako preposizioak / Preposiziozko lokuzio ohikoenak / Artikulu laburbilduen erabilera (*preposizioni articolate*) / Gehien erabiltzen diren juntagailuen erabilera.

Preposizioak, menpeko perpaus inplizituen sartzaile bezala nola erabiltzen diren. Aurkaritzako juntagailuen erabilera sendotu: *ma, tuttavia, però*, etab.

Diskurtsoa

Koherentzia eta kohesioa bermatzen duten diskurtso-elementuen ikasketa burutuko da; ahozko hizkuntzaren diskurtso-elementuen ezagutza eta erabilera zabaldu egingo da.

Aditz-denborak aukeratu eta erabiltzerakoan koherentzia gordetzea sendotu.

Lexikoa eta semantika

Aurreko urteetan ikasitako lexikoa berrikusi eta eskematizatu.

Pixkanaka ikasleen lexikoa jatorrizko italieradun batenarekin parekatzen joango da, eguneroko hizkuntzan gehien erabiltzen diren atsotitzak eta esapideak barne.

Sasiadiskide ezohikoenak aurkeztu.

Semantikari lotutako ahozko hizkuntzaz kanpoko elementuak (gorputz-mintzaira, keinuak).

Fonologia eta ortografia

Ondo ahoskatzeko indarra jarriko da, batik bat espainoldunei ahoskatzea gehien kostatzen zaien soinueta. Jatorrizko hitzuneekin hitz egitea ahalbidetzen duten beste alde batzuk ere indartuko dira: erritmoa, azentuazioa.

Apostrofoa erabiltzeko berezitasunen aurkezpena (Ad. *Sant'Antonio*, etab.)

Nolako estrategiak erabiliko dituzte komunikazio-jarduerak gauzatzeko?

Estrategia esaten dugunean zera esan nahi dugu, bere baliabide guztiak erabiltzeko hitzunak aktibatzen dituen buruzko prozedura guztiak, horiei esker eraginkortasunez komunikatu ahal izateko.

Jarduera planifikatzeko

- Irakurri edo entzungo dena aurreikusteko bere ezagutzak eta bizipenak aktibatuko ditu.
- Komunikazio-egoera kokatu egingo du eta mintzakideak kontuan hartuko ditu, bai mezua bai moldea prestatzeko.
- Mezua planifikatu egingo du eta helarazi nahi dituen ideiak nola komunikatuko aztertuko du.
- Eskura dauden baliabideak aztertu eta mezua egokituko du, edota beharrezkoak diren baliabideak aurkituko ditu.
- Puntu garrantzitsuak komunikatzeko modua aurreikusi eta entseatu egingo ditu.
- Mintzakideek dakitena edo ez dakitena baloratu egingo du.
- Ohiko esaldiak buruz ikasiko ditu.

Jarduera egiteko

- Lehenengo, entzuten edo irakurtzen duenaren asmoa eta zentzu orokorra antzematen saiatuko da.
- Bilatzen duena hor dagoen ikusteko testua gainbegiratu egingo du eta datu zehatzak aurkituko ditu, helburua hori bada.
- Edukiaren inferentziak egitea ahalbidetuko dioten hitz-gakoak hautemateko arreta jarriko du.
- Pixkaka testuaren ideiak hautemango ditu, hipotesiak eginez eta kontrastatuz.
- Ezagunak diren gaietan, esaldien esanahia hitz ezezagunen bidez inferituko du.
- Ulermena arintzeko elementu ezberdinetan jarriko du arreta, hizkuntzazkoetan zein hizkuntzaz kanpokoetan (irudiak, formatoa, intonazioa, keinuak, tonua).
- Testuingurutik abiatuta, ulertu ez dituenak ulertzen saiatuko da.
- Hipotesiak kontrastatzeko berriz irakurriko du edo entzungo.
- Oharrak idatziko ditu, azpimarratu egingo du edo eskema bat beteko du, bai irakurri edo entzuten duenean, eta baita ikasten duenean ere.

- Ezagutzen ez dituen edo zalantzakakoak dituen hitzen esanahia honela asmatzen ahaleginduko da:
 - Ezagutza orokorretatik edo beste hizkuntza batzuen ezagutzetatik, egoeratik edo irudietatik abiatuz.
 - Testuaren edo esaldiaren zentzu orokorretik abiatuz.
 - Testuingurutik abiatuz (errepikapenak, argipenak, adibideak, sinonimoen erabilera...)
 - Beste hizkuntza batzuen ezagutzatik abiatuz.
 - Gramatikako edo lexikoko gakoetatik abiatuz (hitz-familiak, gramatika-kategoriak, kokapena, etab.)
 - Lexikoa eta ohikoak diren esapideak jatorrizko hizkuntzakoekin alderatuko ditu, batik bat inferentziak edo sasiadiskideak gerta daitezkeenean.
- Estrategia pertsonalak erabiliko ditu (ezagutzen ez dituen hitz-gakoak idatzi edo azpimarratu gero haietara itzultzeko, hitz-gakoen eta lokailuen zerrendak egin...)
- Hitz ezezagunen esanahiaren gaineko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabiliko du.
- Ohartarazteko, hitza hartu eta emateko, elkarriketa bat hasteko, jarraitzeko edo amaitzeko, esamolde egokiak erabiliko ditu.
- Errutinak erabiliko ditu, kodea aldatu egingo du eta jakinarazi egingo du, beste hizkuntza bateko hitzak egokituko ditu, parafraseatu egingo du, adibideak emango ditu, beste modu batez adieraziko du.
- Zailtasunak gizarte-estrategien bidez saihesteko dira: mintzakideari laguntzeko eskatuko dio, hobeto ez hitz egin edo ez idazteagatik barkamena eskatuko du, keinuak edo galderak egingo ditu, zerbait keinuez edo irudiz adieraziko du.

Jarduera zuzentzeko eta ebaluatzeko

- Ondo ulertu duen kontrastatu eta baieztatu egingo du.
- Ulertu ez duena adierazi egingo du.
- Saioak eginez, mezua argitzeko eskatuko du edo argitzen saiatuko da.
- Hitz eta esamolde berriak buruz ikasiko ditu eta ondo erabiltzen dituen jakiteko erabili egingo ditu.
- Mintzakideen laguntzaz gaizkiulertuak zuzenduko ditu.
- Erabili duen zalantzakoko forma zuzena den ala ez jakiteko baieztatzeko eskatuko du.
- Komunikazioa eteten denean beste taktika bat erabiliko du.
- Hutsegiteen zergatia aztertu eta gainditzeko beste era batzuk saiatuko ditu.
- Elkar ulertu dutela baieztatuko du.
- Arretaz begiratuko dute testuak beren asmoak betetzen dituzten, ideiak koherentziaz antolatzen diren eta elkarri lotzen zaizkion.
- Aukeratutako testuaren formatuari egokitzen zaion begiratuko diote.

HELBURUAK

Zein dira 2. kurtsoko helburuak?

Tarteko Mailako 2. kurtsuan ikasleak zera ikasiko du:

- Ikasten duen hizkuntza erabiltzen, gai zehatz, abstraktu edo kulturaleri buruz komunikatzeko, eskola esparruan, eta gerta dakizkion beste egoera askotan ere, aurrez-aurre edo bide birtualak erabiliz.
- Egoera horietan egoki ulertzen, elkarrekintzan jarduten, parte hartzen eta adierazten, formaltasun edo informaltasun erregistro estandarean, ahoz zein idatziz, malgutasun dezenterekin.
- Gerta daitezkeen egoeren alde soziokulturak hobeto ezagutzen, bai ohiko egoeretan eta baita lan-alorrekoetan ere. Egoera horietan guztietan gizarte-esamolde, keinu, erregistro eta trataera egokiak erabiltzen.
- Jarduera funtzional eta formalaren bidez, behar diren hizkuntza-baliabideak barneratzen, horretarako estrategia eraginkorrenak erabiliz.

Zer nolako komunikazio-jarduerak egingo dituzte?

Ahozko jarduerak

Egoera eta gai sorta zabalean egoki jardun, segurtasun eta hitz-jario dezenterekin, antolaketa eta kohesio bakun baina eraginkorrez eta argi ahoskatuz, atzerriko azentua eduki arren.

Elkarrizketak

- Gizarte harremanak sortu eta bat-bateko elkarrizketei ekin, eguneroko gaiei buruz informazioa, iritzia, jarraibideak edo arazoaren irtenbideak trukatu.
- Segurtasun nahikoarekin gai orokorre buruzko elkarrizketetan parte hartu, eta baita hain ezohikoak diren gaiei buruzkoetan, bere intereseko edo bere esparruko gaiak direnean.
- Arazoaren zergatiak azaldu, jarraitu beharreko pausuei buruz eztabaidatu, aukerak aztertu eta alderatu.
- Ustekabea, zoriona, tristezia, interesa eta axolagabetasuna bezalako sentimenduak adierazi, eta horiei erantzun.
- Gizarte harremanetan gizalegezko ohiko trataerak erabili, sarritan gertatzen den egoera sortan.

Eztabaidak formalak

- Iritziak, planak, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta defendatu, eta behar diren azalpenak, argudioak eta iradokizunak eman.

Negoziatioak

- Zeregin gehienak egoki konpondu (ikasten den hizkuntza mintzatzen den herrialde batera egindako bidaian, ostatua hartzerakoan, izena ematerakoan edo herrialdeko agintariekin jarduterakoan).
- Hain ohikoak ez diren egoeretan, dendetan edo zerbitzu publikoetan, arazorik gabe negoziatu. Adibidez, erosi eta konforme utzi ez gaituen zerbait bueltatzerako unean.
- Arazoren bat edo zerbitzuren bat negoziatu eta konpontzerakoan, ezagutza, betebeharra, aukera, adostasuna, eta kontrakoak adierazi.

Informazio-trukea

- Konfidantza dezenterekin, hain ez-ohikoak edo bere esparrukoak diren gaietan, informazio zehatza lortu, trukatu, aztertu eta baieztatu.
- Zerbait nola egiten den azaldu, argibide zehatzak eman.
- Kontakizunak, artikulak, hitzaldiak, elkarrizketak edo dokumental laburrak laburbildu eta horiei buruzko iritzia eman, eta zehaztasunak ematea eskatzen duten galderei erantzun.

Deskribapena eta kontaketa

- Bizipenak zehaztasunez eta hitz-jario dezenterekin kontatu, egoerak, sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz eta alderatuz,
- Ustegabeko gertakizunen xehetasunak kontatu, hala nola istripu bat.
- Ametsak eta itxaropenak, nahiak, benetako edo asmatutako gertakizunak, deskribatu.

Jendaurreko aurkezpenak eta arrazoiketak.

- Bere esparruko gai bat aurretik prestatu ondoren, labur aurkeztu, argi eta zehatz, eta galdera osagarriari erantzun.
- Datuak / ideiak lotu eta alde garrantzitsuak azpimarratu.
- Gai bati ekin, aldatu eta amaitu.

Idatzizko jarduerak

Testuek hizkuntza-elementu mota dezente eta antolaketa eta kohesio bakun baina eraginkorra eduki beharko dituzte eta, gainera, egoera komunikatiboari egokitu beharko zaizkio.

- Mintzakide zehatzei mezuak idatzi ohikoak diren gizarte harreman eta jarduerak burutzeko, eta baita informazioa emateko, edo bizipenak, interesak, erantzunak, sentimenduak eta gertakizunak deskribatzeko, xehetasun dezenterekin eta bere ustez garrantzitsuak diren aldeak azpimarratuz.
- Gutun pertsonalak idatzi, gai zehatzei, abstraktuei edo kulturei buruzko ideiak helarazteko, informazioa baieztatzeko, arazoei buruz galdetzeko, edo arazoak xehetasun dezenterekin azaltzeko.
- Zerbitzuei lotutako pertsonentzako oharak idatzi, informazioa helaraziz edo berehalako izaera duten azalpenak eskatuz, bere ustez garrantzitsuenak diren aldeak azpimarratuz.
- Gutun formal estandarizatuak idatzi zerbitzuren bat edo informazioa eskatuz, arazoren bat aurkeztuz, erreklamazioa eginez edo eskerrak emanez.
- Txosten estandarizatu laburrak idatzi ohiko gertakizunei buruz edo ekintzen zergatiari buruz,
- Gertakizun zehatzei buruzko iritzia eman, segurtasun dezenterekin, ohiko gaiak izan edo ez, edo bere esparruko gaiak direnean.
- Jarraibideak, lan-eskaerak, curriculum vitaeak, informazioa aurkezteko edo helarazteko iragarki laburrak idatzi.
- Bere bizipenak kontatu, testu labur eta egituratuetan sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz.
- Benetako edo asmatutako kontakizunak kontatu. Historia bat kontatu.
- Bere intereseko gaiei buruzko saio laburrak idatzi, eta bere iritzia eman.

Entzutezko jarduerak

Elkarrekintza eta mezu luzeak, gai orokorrei buruz, egoera ez hain ohikoetan ere, argi ahoskatuta, erregistro estandarrean eta informazio-hutsuneak kontrolatzeko moduan.

- Elkarrizketa bati jarraitu eta gizarte harremanetan eta egoera ez hain ohikoetan esaten diotenari egoki erantzun, argitzeko eta errepikatzeke eskatu ahal badu.
- Gai orokorrei edo bere esparrukoiei buruzko eztabaida baten puntu nagusiei jarraitu, hizlariak hizkuntza estandar samarra erabiltzen badute eta garbi ahoskatzen badute.
- Eztabaida batean gaia aldatu dela antzeman eta iritzi-trukeak hauteman.
- Pertsonaien, gauzen, jardueren, zerbitzuen eta lekuen deskribapenak ulertu.
- Jarraibide zehatzei segitu, testuinguruan kokatuta badaude.
- Informazio erraza bildu eta eguneroko zereginetan ondo moldatu.
- Elkarrizketetan informazioa aztertu eta baieztatu, nahiz eta noizbehinka esandakoa errepikatzeke eskatu behar izan, mintzakidearen erantzuna luzea edo bizkorra izan bada.
- Esaten diotenari, azalpenei, deskribapenei edo kontakizunei jarraitu, gai orokorretan edo bere esparrukoetan, ongi egituratuta badaude.
- Hitzaldi batean ohar zehatzak idatzi.
- Jarraibide tekniko errazei jarraitu, hala nola ohiko tresnak erabiltzeko edo muntatzeko azalpenak.
- Jarraibide zehatzei segitu.
- Publizitate-iragarkien esanahia antzeman.
- Megafoniaz igorritako mezuak eta iragarkiak ulertu, gaia testuinguruan dagoenean.
- Telebista-saio gehienak ulertu (elkarrizketak, hitzaldi laburrak eta albistegiak), bere interes pertsonaleko gaietan eta argi eta astiro ahoskatuta badaude.
- Filma asko ulertu, ikusizko elementuek eta ekintzak argumentoaren pisua dutenean eta argi ahoskatzen badira eta hizkera-maila erraza badute.

Irakurmen jarduerak

- Ohikoak diren gutunak, SMSak eta posta elektronikoak ulertu eta helburu-komunikatua hauteman (informazioa edo azalpenak eman eta eskatu, hartu-agiria eskatu, eskerrak eman...)
- Gai zehatz eta abstraktueta informazioa ulertu eta baieztatu.
- Mintzakideak adierazten dituen hurkotasun-zeinuak antzeman, batik bat agurretatik abiatuz.
- Gertakizunen, sentimenduen eta nahien deskribapena ulertu, lagunekin posta-harreman iraunkorra izateko moduan.
- Testu luzeetan informazio zehatza aurkitu eta jatorri ezberdinetatik datorren informazioa bildu lan jakin bat burutzeko.
- Interneten informazio zehatzak bilatu eta aurkitu, aurretik emandako web orri eta helbideen bidez, ikasi nahi den hizkuntzan.
- Ezagunak diren gai orokorretan kazetaritzako artikulu edo albiste bakun baten puntu esanguratsuak antzeman.
- Diskurtso baten argumentazio-eskema antzeman.
- Argi artikulatuta dagoen argudiozko testu baten konklusioak identifikatu.
- Bere intereseko literatur-testuen argumentuari segitu eta asmoa ulertu.
- Norabait joateko, ariketa fisikoak egiteko, errezeta bat prestatzeko, joko bat egiteko, aparailu bat erabiltzeko edo zerbitzu bat eskuratzeko jarraibideei segitu.
- Argi idatzitako arauak ulertu (segurtasunari buruz, ikasgelako jokaerei eta ardurei buruz, bidaietarako kontseiluei buruz, etab.).

Zer funtzio ikasi behar dituzte?

1. Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agur eta adio esan, bere burua aurkeztu, norbait aurkeztu, lagun edo ezagun bati, ezezagun edo bezero bati, zuzendu, baimena eskatu, barkamena eskatu, eskerrak eman, zoriondu edo norbaiti arreta eskatu.
- Norbaiten gainean galdetu; interesa, ustekabea, poza, tristezia, pena, gogobetea, nahigabea, itxaropena, atsekabea, beldurra, onespena, gaitzespena adierazteko esamoldeak erabiliz informazio bati erantzun.
- Beste erabilera ohiko batzuk: oparitu, goraiatu, gonbidatu, zoriondu, topa egin, ongietorria eman, gertakizun batzuetan gizalegezko trataerak erabili (dolumina, zoriona, ...), eta egoera horietan erantzun.
- Adostasuna eta desadostasuna, aukera mailak, premia edo premiarik eza, ziurtasun mailak, betebeharra, egiteko ahalmena, asmoa, lehentasuna, gustua/disgustua, oroitzapenak eta kezak adierazi.
- Aurreko ekintza guztiei buruz galdetu.
- Laguntza eskatu eta eskaini, gonbitea luzatu eta onartu, iradoki, iradokizuna onartu/errefusatu, barkamena eskatu eta barkatu, eta baimena eman eta eskatu.

2. Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu: ulertu ez dela adierazi, zerbait berriz esan, letraka esateko edo argitzeko eskatu, astiroago hitz egiteko eskatu, ezagutu edo ulertu ez diren hitzei edo esamoldeei buruz galdetu.
- Berbaldua ulertzen dela adierazi, argipenak eskatu, parafraseatu, hutsak zuzendu, baieztatu.
- Ulertu ez duen ikaskide bati zerbait azaldu edo itzuli.
- Ondo ulertu ote den baieztatzeko eskatu.

3. Informazio orokorra:

- Beste pertsonaren bati buruzko informazioa eman eta eskatu: izena, adina, abizenak, egoera zibila, naziotasuna, lanbidea, telefono zenbakia, helbidea, posta elektronikoa, trebetasunak, zaletasunak, nahiak.
- Ordutegiei, salneurriei, datei, jakiei, tokiei (eskola edo bizilekua), kopuruei, gauzei edo jardueri buruzko informazioa eman eta eskatu.
- Gauzak, pertsonak eta lekuak identifikatu.
- Zerbait norena den galdetu eta esan.
- Pertsonak, aldarteak eta egoera fisikoak deskribatu.
- Zerbait non eta noiz gertatu den azaldu.
- Ohiko ekintzak edo egungoak aipatu.
- Iraganeko gertaerak edo jarduerak aipatu.
- Iraganeko eta oraingo jarduerak lotu.
- Asmoei eta proiektuei buruz jardun.
- Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- Eguraldiari buruz hitz egin.
- Gauzak lekuan mugatu eta kokatu (objektuak ikasgelan, etxean, hirian).
- Zerbait edo norbait gertu edo urrun dagoen adierazi.
- Iraganeko edo asmatutako gertakari bat kontatu eta hari buruz galdetu.
- Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza adierazi.
- Etorbizuneko edo balizko ekintzaren bat aipatu.
- Azalpenetan gertaerak zenbatu.
- Informazioa errepikatu eta helarazi.
- Informazioa lotu (zergatia, ondorioa, baldintzak).
- Laburbildu (pelikulak, liburuek...).
- Definitu.
- Gertaera baten berri ez duela edo baduela adierazi.
- Iragarpenak egin eta gauzen berri eman.
- Helburuak adierazi (asmoak eta promesak).
- Pertsonen, gauzen, gertakari edo ekintzei buruzko hipotesiak azaldu.
- Denbora sekuentziak adierazi.
- Informazio-azalpenak eman.

4. Iritziak eta balorazioak

- Ezagutzen den ala ez galdetzen eta adierazi.
- Gauzak, lekuak, egoerak eta ekintzak alderatu.
- Zalantza adierazi.
- Erabateko adostasuna edo partziala edo desadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde edo kontra azaldu.
- Lehentasunak, gustuak, atsegina eta interesak (eta kontrakoak) adierazi eta horiei buruz galdetu.
- Hautaketa, axolagabetasuna, harridura, pena, ziurtasuna eta zalantza adierazi.
- Iritzi edo jardueraren bat justifikatu.
- Zergatiak, helburuak eta ondorioak azaldu.
- Zerbait egiteko baldintzak adierazi.
- Gertaeraren bat neurtu (erraza, daitekeena).

5. Osasun egoerak, sentsazioak eta sentimenduak

- Sentsazio fisikoei buruz (hotza edo beroa, logura, gosea, egarria, zaporea, nahieza edo atsegina) informazioa eskatu eta eman.
- Hobekuntzak eta okerragotzeak adierazi.
- Aldarteari eta horren arrazoiei eta ondorioei buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.
- Sentimenduak adierazi: ustekabea, poza, tristezia, kezka, desengainua, beldurra.
- Besteen sentimenduen aurrean egoki erantzun.

6. Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Gauzak eta zerbitzuak eskaini eta eskatu, onartu eta errefusatu.
- Aholkuak eta aginduak eman eta eskatu.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini eta eskatu, onartu eta ukatu.
- Zerbaitera gonbidatu edo hori eskaini, onartu eta errefusatu.
- Zerbait egitera bultzatu.
- Jakinaren gainean jarri eta ohartarazi.
- Argibideak eskatu eta eman (helbideak, lekuren batera iristeko).
- Laguntza eskatu.
- Zerbait egiteko asmoari buruz, nahiari edo erabakiari buruz, informazioa eskatu edo eman.
- Komunikazio-egoera berebetean eskaera bat helarazi.
- Zerbait egiteko aukera, ezintasuna eta beharra adierazi.
- Debekua adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunei erantzun.
- Hitzordua lotu, norbaitekin lotu.
- Telefono bidezko oinarritzko elkarrizketak izan: komunikazioa hasi, norbaiten galdea egin, solaskideari itxaron dezan eskatu, entzuten edo ulertzen den adierazi, agurtu, etab.
- Norbait zerbait egitera bultzatu.

7. Diskurtsoaren antolaketa

- Norbaiti zuzendu, hitza eskatu eta hartu.
- Berbaldia hasi eta amaitu.
- Gairen bat ekarri.
- Elkarrizketa edo eztabaida bat antolatu: iritzia adierazi, adibideak ipini, bere burua zuzendu, zalantzak izan, laburbildu.
- Elkarrekintzan jardun: iritzia eskatu, gaia aldatzeko eskatu, jarrai dezan eskatu, txanda eman.
- Elkarrekintzan erantzun: berbaldi baten hariari jarraitzen zaiola erakutsi, moztu.
- Diskurtso baten zatiak lotu.
- Diskurtsoa kohesionatu (denborazko kohesioa, beharrezkoak ez diren errepikapenik gabe erreferentea gorde).
- Telefonoz hitz egin: erantzun, norbaiten galdea egin, itxaroteko eskatu, entzuten ote duten galdetu, entzuten ari zarela adierazi, dei berria dagoela jakinarazi.
- Eskutitz eta mezuetan egitura egokia eta formaltasun edo ez-formaltasun maila egokia erabili.
- Testu/diskurtsoetan egokiak diren araubideak erabili.

Nolako testuak irakurriko dituzte?

Irakurtzen diren testuek helburu zehatza dute, lan zehatzen testuinguruan.

- Mezuak (SMSak, posta elektronikoak, gutunak), pertsonalak edo sozialak, informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak trukatzeko.
- Oinarrizko gutun formalak.
- Gai orokorrei buruzko galdetegi eta inprimakiak.
- Bere ohiko jardueren edo bere intereseko gaien inguruko mezu eta oharrak.
- Gizarte testuak esamolde estandarizatuekin: zorionak eman, gonbidatu, onartu/errefusatu, eskerrak eman, mesedea eskatu, barkamena eskatu.
- Informazio eta azalpen txostenak.
- Seinaleak eta kartelak.
- Laneko iragarkiak.
- Jarraibideak eta araubideak.
- Iragarki publikoak eta oharrak.
- Iragarki-liburuxkak.
- Posterrak, publizitate iragarkiak.
- Liburuxkak eta gida turistiko eta komertzialak.
- Prezioen zerrendak.
- Ordutegiak.
- Fakturak, txartelak, irрати, telebista, zinema eta antzerki programak, mapak.
- Txosten arruntak.
- Telefono-zerrendak, agendak, aisialdirako gidak, katalogoak, hiztegiak.
- Web orriak.
- Errezetak.
- Egunkari eta aldizkariak: ezagunak diren gaien inguruko albisteak, artikulu ez espezializatuak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, “zuzendariari eskutitzak”.
- Erregistro estandarrean dauden komikiak.
- Olerki errazak.
- Biografiak.
- Abestien hitzak.
- Horoskopoak.
- Eleberriak eta ipuinak.

Nolako testuak entzungo dituzte?

Entzuten diren testuak helburu zehatza dute, jardun zehatzen testuinguruan.

- Aurrez-aurreko elkarrizketa informalk.
- Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan.
- Informazio-trukeak.
- Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatu eta emateko, arazo zehatzak konpontzeko (jardun administratibo eta komertzial errazak, erreklamazioak, itzultzeak) trukeak.
- Deskribapenak eta kontakizunak.
- Lan-taldeetan eta elkarrizketetan elkarrekintzak.
- Ezagunak ditugun kultura-alorreko edo gaurkotasuneko gaien inguruko iradokizunak, iritziak eta arazoibideak.
- Esparru ezagunei lotutako mezu eta azalpenak (informazio pertsonala, kurtsoak, ikasketak, lana, aisialdia eta berehalako premiak).
- Ezagunak diren gaien inguruko eztabaidak, hizkuntza estandarrean.
- Jarraibideak, aholkuak eta argibideak.
- Aurkezpenak, deskribapenak eta testuinguruan kokatutako kontakizun errazak.
- Gai orokorrei buruzko hitzaldiak, argi egituratuak.
- Informazio eta iragarki publikoak geltokietan, aireportuetan, musika emanaldietan, kirol ikuskizunetan, eta abarretan.
- Erantzungailu automatikoak.
- Denborari, zirkulazioari, ordutegiei, osasun-zerbitzuei buruzko telefono bidezko informazioa.
- Eguraldi-albistegia
- Informazio turistikoa (audiogidak).
- Publizitate testuak irratian eta telebistan.
- Erreferentzia ezaguna duten albisteak.
- Saltokien iragarkiak eta eskaintzak.
- Jatorrizko hitzunik ez direnei zuzendutako irрати eta telebista saioak.
- Abestiak.

Nolako testuak sortuko dituzte?

Sortzen diren testuek helburu zehatza dute, lan zehatzen testuinguruan.

Hitz egiteko

- Eguneroko gizarte harremanak (agurrak, adioak, aurkezpenak, barkamenak, eskerronak) eta gertakizun berezietakoak (goraipamenak, laudorioak, etab.).
- Zorionak, gonbidapenak, gizalegezko esamoldeak, jarduerak egiteko proposamenak.
- Aurrez-aurreko elkarrizketa informalak.
- Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan.
- Informazio-trukaketak (pertsonala, gustuak, interesak, iritziak, jarduerak, kokapenak, zenbatekoak, salneurriak, datak eta orduak).
- Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatu eta emateko, arazo zehatzak konpontzeko (jardun administratibo eta komertzial errazak, erreklamazioak, itzultzeak) trukeak.
- Mezuak, deskribapenak eta kontakizunak errepikatu eta helarazi.
- Lan-taldeetan eta elkarrizketetan elkarrekintzak.
- Aurrez prestatutako eztabaidak.
- Ezagunak ditugun kultura-alorreko edo gaurkotasuneko gaien inguruko iradokizunak, iritziak eta arrazoibideak.
- Ulermena kontrolatzeko, elkarrizketa bat hasi eta amaitzeko, edo gaia aldarazteko erak.
- Argipenak, itzulpenak edo mezuaren inguruko azalpenak.

Idazteko

- Mezuak (SMSak, posta elektronikoak, gutunak), pertsonalak edo sozialak, informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak trukatzeko.
- Oinarrizko gutun formalak.
- Gai orokorreko buruzko galdetegi eta inprimakiak.
- Bere ohiko jardueren edo bere intereseko gaien inguruko mezu eta oharak.
- Gizarte testuak esamolde estandarizatuekin: zorionak eman, gonbidatu, onartu/errefusatu, eskerrak eman, mesedea eskatu, barkamena eskatu.
- Informazio eta azalpen txostenak.
- Artikulu labur eta errazak bere intereseko gaiei buruz, eskolako egunkari eta aldizkarietarako.
- Iturri ugarietatik datorren informazioaren laburpena.
- Ohikoak diren gertakizunei buruzko txosten laburrak.
- Jardueren kontakizun laburrak.
- Bere intereseko eguneroko gaiei buruzko deskribapen errazak.
- Gertakizun zehatz bati buruzko deskribapena (bidaia, etab.).
- Asmatutako kontakizun laburrak.
- Asmo eta akordioen deskribapena.
- Biografiak.
- Curriculum vitaeak.
- Errezetak eta jarraibideak.

Zer gai landuko dituzte?

- Nork bere burua identifikatzeko
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua
- Eguneroko bizimoduko jarduerak
- Denbora libre eta aisialdia
- Bidaiak
- Giza eta gizarte harremanak
- Osasuna eta zainketa fisikoa
- Hezkuntza
- Erosketak eta merkataritza-jarduerak
- Elikadura
- Ondasunak eta zerbitzuak
- Hizkuntza eta komunikazioa
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena
- Zientzia eta teknologia

Nolako atazak egin behar dituzte?

Bidaiak:

- o Italiara bidai birtual bat prestatu: ibilbidea, hotela, parte hartzaileak, garraioak, datak, jarduerak kulturalak, etab.

Giza eta gizarte harremanak:

- o Eduki zabaleko aldizkari bat egin.

Kultura:

- o Eleberri baten kritika egin.

Zer gaitasun garatuko dituzte komunikazio-jarduerak gauzatzen jakiteko?

Gaitasun pragmatikoak

Egoerari egokitu. Erregistroa:

- Egoera eta testuinguruari erreparatu behar zaie mezua ulertu eta ekoizteko.
- Aurrean dituen testuen edo trukaketaren komunikazio-asmoak ulertu eta ideia nagusiak, gai aldaketak, iritzi ezberdintasunak edo xehetasunak antzeman.
- Komunikazio-asmoa zehaztasun dezenterekin bete, informazio zehatza helarazi, garrantzitsuena azpimarratu, baita egoera ez hain ohikoetan edo zailetan. Gai abstraktuetan, beharbada moldaketa batzuk behar izango ditu eta emaitza pixka bat nahasiagoa suerta daiteke.
- Erregistroa, trataera, adierazpenak, jarrerak, tartea, mugimendua eta ahotsaren tonua egokitu, asmo komunikatiboaren arabera, testu/diskurtsoaren arabera, mintzakideen arabera, komunikazio-kanalaren arabera eta tokiaren arabera.

Ideien koherentzia eta antolaketa testu motaren arabera:

- Ikasten den hizkuntzan eta kulturaren elkarrizketa bat nola ematen den behatu eta errepikatu (agurra, hasiera, gaiak sartu, erantzuna, txandak, gai-aldaketak, etenak, ondorioak eta bukaera).
- Ideiak koherentziaz antolatu, zentzugabeko jauzirik edo atzera-egiterik gertatu gabe.
- Denborazko, espaziozko edo logikazko aurreratzei arreta egin (gaia-iradokizuna, kausa-ondorioa, baldintza-burutzua, tesia-argumentazioa, konklusioa).
- Aurrean ditugun edo sortzen ditugun testuaren ezaugarri, antolaketa eta formatuari egokitu (gutunak, elkarrekintzak, liburuxkak, oharak, aurkezpenak).

Lotura eta erreferentzia errekurtsuak. Hitz-jarioa:

- Elkarrizketa eta eztabaidetan norbaiti zuzentzeko edo hitza hartzeko, mintzakidea erakartzeko edo parte hartzen dugula erakusteko, ulermena kontrolatzeko, erantzuteko eta parte hartzeko, berbaldiak izan eta amaitzeko, baliabide egokiak ezagutu eta erabili (esponenteak, soinuak, intonazioa eta keinuak).

- Jaso eta sortzen diren testuetan, diskurtso horren uneak (hasiera, jarraipena, sailkapenak, zenbatzeak, argudioak, adibidea, enfasia, birformulazioak, laburpena/konklusioak, gai aldaketa, amaituko den iragarpena eta amaiera) seinalatzen dituzten diskurtso-markatzaile eta intonazio ohikoenak ezagutu eta erabili.
- Mezua testuinguruan kokatu, denborazko eta espaziozko adierazpide egokiak erabiliz.
- Informazioari berriz ekin baina nahigabeko errepikapenak saihesteko erreferente argia duten ordezkapen-baliabide errazak erabiliz (elipsiak, izenordainak, adberbioak edo balio anaforikoa duten esamoldeak, eta prozedura lexikalak).
- Erabilera-lokailuen eta diskutsoaren puntuazioaren balioa ezagutu eta malgutasunez erabili.
- Denborazko koherentzia testu osoan zehar gorde.
- Mailari dagozkion testuen ulermen erraza izan, estrategia egokiak erabiliz.
- Eguneroko trukaketetan eta beste elkarrizketetan erraz eta hitz-jario arinez moldatu. Zailtasunen aurrean, eraginkortasunez eta laguntzarik gabe aurrera egin.
- Bere baliabideak egoera berriei egokitu eta diskurtso malgu samarra lortzeko esaldiak lotu.

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntza bat erabiltzeak beronen dimentsio soziala ulertzea eta barneratzea dakar, eta baita dimentsio sozial hau praktikan gauzatzea ere. Alor soziokulturalek (hala nola ordutegiak, ohiturek, jaiek, aisialdirako jarduerak, errituek, gizarte egiturak, historiak...) bere baitan balioak, sinesmenak eta portaerak jasotzen dituzte eta horien azpian errealitatea barneratzeko era bereziak daude. Horietara egokitzeak kulturen arteko gaitasun aberasgarria emateaz gain, ikasi nahi den hizkuntzako herrialdean eta kultura horretako herritarrekin egoki jokatzeko laguntzen du.

Gizarte harremanak: formaltasuna/informaltasuna, tartea/hurbiltasuna, hierarkia

- Gizarte trataera egokiak erabili, baita ezohiko egoeretan ere.
- Ezezagunekin elkartzerakoan kulturari dagokion jokabidea (jarrera, begiradak, tartea, eguraldiari buruzko galderak, isiluneak) eta hizkuntza erabili.
- Bere kulturaz besteko keinuen esanahia ezagutu eta horiek erabiltzen jakin.
- Ahozko hizkuntzaz besteko jokabideak ezagutu eta horietara moldatu: ukituak, begiradak, ohartarazteko keinuak, soinuak, edo elkarrekintzako adierazpideak (eskua eman, musua eman, tartea, begiei begiratu ala ez).

Hizkuntza estandarra eta aldaerak

- Egoera formala eta informala bereizten jakin eta kultura horretan ohikoa den jokamoldera egokitzen jakin (egoera ofizialak, erritualak, formalak, informalak, intimoak).
- Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko aldeak ezagutu eta gauzatu.
- Lagunarteko esamoldeak ezagutu eta ohikoenak une egokian erabili (ahozkoak, idatzizkoak, SMSak, txatak).

Kultura-erreferenteak

- Ohikoa den interferentzia baten zentzu bikoitza edo esanahi itsusia ezagutu.
- Eguraldiari buruzko esamoldeen balio zehatz edo erlatiboa ezagutu.
- Beste kulturaren iraingarriak edo tabuak izan daitezkeen alde eta adibide ohikoenak ezagutu.
- Erantzun barregarri edo mespretxuzkoak eragin ahal dituzten interferentzia ohikoen esangura ezagutu.
- Ohikoak diren esamolde edo esapideen esanahi zabala ezagutu.
- Pertsona eta gertakizunei buruzko ohiko esamoldeen esanahia ezagutu.

Hizkuntza-gaitasuna

Fonologiako, ortografiako eta gramatikako hizkuntza-gaitasunak komunikatzeko bitartekoa dira, eta haien erabilera barne hartzen duten zereginen bitartez barneratzen dira.

Perpaus bakuna

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Perpaus konposatua

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Mendeko baldintzazkoak:

- Errealitatearen alegiazko aldia (III. Mota): *Se avesse fatto bel tempo sarei andato in spiaggia.*

- Honako lokailu hauekin hasten direnak: *Se, purché, a condizione che, a patto che.*

Mendeko denborazkoak:

- Honako hauekin hasten direnak: *intanto che, mentre, ogni volta che, finché, (non) appena, dopo che, prima che, etc.*
- Aditz denboraren komuntaduraren aurkezpena (*consecutio temporum*)

Mendeko kontzesiboak:

- Honela hasten direnak: *anche se, benché, sebbene, malgrado, nonostante...*

Mendeko xedezkoak:

- *perché, affinché* hasten diren esplizituak.
- *a, per* hasten diren inplizituak.

Mendeko konparatiboak:

- *come, quanto, più/meno di quanto/di come* korrelazio elementuekin hasten direnak

Zeharkako estiloaren aurkezpena

Izenak eta adjektiboak

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Plural batzuen osaketa berezia (*plurali doppi*).

Genero ezberdinak dituzten izen-sekuentzietako adjektiboen komuntadura.

bello eta buono adjektiboen formak eta erabilerak.

Determinatzaileak

Artikuluak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / artikulua aipatzen ez den kasuen aurkezpena.

Erakusleak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / *Stesso* aurkeztu eta nola erabiltzen den ikusi.

Edutezkoak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Zenbatzaileak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. Izenaren ondoren eta mendeak adierazteko ordinalen aurkezpena / numeral kolektiboen aurkezpena (*duetto, terzetto, etab.*) / *-enne* atzizkia daukaten kardinalak.

Mugagabeak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Galdetzaileak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Izenordainak

Pertsonalak: aurreko urteetako edukiak berrikusi (OZ, ZO, subjektuaren arabera forma tonikoak eta atonoak, aditzaren araberrako kokapena) / *CI* eta *NE* partikulak nola erabiltzen diren berrikusi eta sendotu / Izenordainak nola elkartzen diren sendotu / Izenordainak eta *CI* lokatiboa nola elkartzen diren aurkeztu.

Erakusleak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi. / Ahozko hizkuntzan erabilera indartuen aurkezpena.

Mugagabeak: aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi / *Altro* partikularen erabilera eta funtzio pronominala.

Erlatiboak: aurreko urteetako edukiak berrikusi eta sendotu (*che* eta *cui* aldaezinak; *il/la quale, i/le quali* aldakorrak eta funtzio genitibokoak) *Chi* erlatibo bikoitzaren aurkezpena.

Edutezkoak: aurreko urteetako edukiak berrikusi / Hizkuntza-erabilerazko esamolde batzuetan edutezko izenordainen erabilera substantibatuen aurkezpena (Ad. *dire la mia*, etab.)

Aditzak

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi:

- indikatioa: - lehenaldi burutuaren morfologia eta erabilerak (*Passato prossimo*) (forma erregular eta irregularrak)

	- lehenaldi burutugabearen morfologia eta erabilerak (<i>Imperfetto</i>) (forma erregular eta irregularrak)
	- lehenaldi pluskuanperfektuaren morfologia eta erabilerak (<i>Traspassato prossimo</i>) (forma erregular eta irregularrak)
	- geroaldi bakunaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak) / haren modu-erabilerak berrikusi.
baldintza:	- Baldintzako bakuna eta konposatuaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak)
	- baldintzako modu konposatuaren morfologia eta erabilerak (forma erregularrak)
agintera:	- aginteraren morfologia eta erabilerak / forma pronominalen morfologia eta erabilerak (izenordainen kokapena)
subjuntiboa:	- orainaldiaren morfologia eta erabilerak (forma erregular eta irregularrak)
	- lehenaldiaren morfologia eta erabilerak (<i>Passato</i>) (forma erregular eta irregularrak)
	- lehenaldi burutugabearen morfologia eta erabilerak (<i>Imperfetto</i>) (forma erregular eta irregularrak)

Honako aditz-forma hauen aurkezpena:

indikatioa:	- geroaldi konposatuaren morfologia eta moduzko eta denborazko erabilerak (<i>futuro anteriore</i>) (forma erregularrak).
	- lehenaldi mugagabearen morfologia eta erabilerak (<i>Passato remoto</i>) (forma erregular eta irregularrak)
modu subjuntiboa:	- pluskuanperfektuaren morfologia eta erabilerak (<i>Traspassato</i>) (forma erregular eta irregularrak)

Aspektuzko aditz ohikoenetan sakondu (*cominciare a, finire di, stare per, etc.*)

Forma pasiboa berrikusi eta horretan sakondu: *essere* aditz laguntzailearen erabilerak berrikusi eta *venire, andare* laguntzaileak aurkeztu / *si* inperzonalak eta *passivante* orainaldian aurkeztu.

Fare eta *lasciare* aditzekin osatuak dauden eta kausazko balioa duten perpausen aurkezpena (Ad. *far fare, lasciar fare, etab.*)

Adberbioak

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Che!, come!, quanto! harridurazko adberbioen inguruko hausnarketa teorikoa.

CI berrikusi eta *VI* adberbio funtzioarekin aurkeztu.

Lokailuak

Aurreko urteetan ikusitako edukiak berrikusi.

Izenordain pertsonalak sartzeko *DI* preposizioa behar duten preposizio polisilaboen erabilera (Ad. *senza di te*)

Aspektuzko aditzekin preposizioak nola erabiltzen diren ikusi (Ad. *cominciare a*)

Argumentoa sartzeko, aditz batzuekin preposizioak erabiltzea (Ad. *accettare di, abituarsi a, affidarsi a, etab.*)

Funtzio korrelatiboen aurkezpena: *né... ne, sia... sia*

Tanto...quanto, non solo...ma (anche), etab. funtzio korrelatiboen aurkezpena

Juntagailu menderatzaileetan sakondu (Ej. *sebbene, benché, malgrado, nonostante, affinché, etc.*)

Diskurtsoa

Koherentzia eta kohesioa bermatzen duten diskurtso-elementuen ikasketa burutuko da; ahozko hizkuntzaren diskurtso-elementuen ezagutza eta erabilera zabaldu egingo da.

Aditz-denboren arteko koherentzian sakondu.

Lexikoa eta semantika

Aurreko urteetan ikasitako lexikoa berrikusi eta eskematizatu.

Pixkanaka ikasleen lexikoa jatorrizko italeradun batenarekin parekatzen joango da, eguneroko hizkuntzan gehien erabiltzen diren atsotitzak eta esapideak barne.

Ezohikoak diren sasiadiskideak (segida)

Sinonimo eta antonimo ohikoenen aurkezpena.

Semantikari lotutako ahozko hizkuntzaz kanpoko elementuak (gorputz-mintzaira, keinuak)

Esamolde idiomatiko batzuen aurkezpena.

Fonologia eta ortografia

Ondo ahoskatzeko indarra jarriko da, batik bat espainoldunei ahoskatzea gehien kostatzen zaien soinetan. Jatorrizko hitzuneekin hitz egitea ahalbidetzen duten beste alde batzuk ere indartuko dira: erritmoa, azentuazioa.

Enfasia adierazteko orduan gaur egun erabiltzen diren kontrakzio batzuen inguruko hausnarketa laburra.

Nolako estrategiak erabiliko dituzte komunikazio-jarduerak gauzatzeko?

Estrategia esaten dugunean zera esan nahi dugu, bere baliabide guztiak erabiltzeko hitzunak aktibatzen dituen buruzko prozedura guztiak, horiei esker eraginkortasunez komunikatu ahal izateko.

Jarduera planifikatzeko

- Beren ezagutzak eta bizipenak aktibatuko dituzte irakurri edo entzungo dutena aurreikusteko.
- Komunikazio-egoera kokatu egingo dute eta mintzakideak kontuan hartuko dituzte bai mezua bai moldea prestatzeko.
- Elkarrekintzak nola funtzionatzen duen edo testuak nola antolatzen diren kontuan hartuko dituzte.
- Mezua planifikatu egingo dute, ideiak koherentziaz antolatuko dituzte.
- Testuen ereduak behatuko dituzte, dagokion formatuari egokitzeko.
- Eskura dauden baliabideak aztertu eta mezua egokituko dute, edota beharrezkoak diren baliabideak aurkituko dituzte.
- Diskurtsoa kohesionatzeko esaldiak eta esponenteak kontuan hartuko dituzte.
- Diskurtsoa antolatzeko markagailurik behar den aztertuko dute.
- Puntu garrantzitsuak komunikatzeko modua aurreikusi eta entseatuko dituzte.
- Mintzakideek dakitena edo ez dakitena baloratu egingo dute.

Jarduera egiteko

- Lehenengo, entzuten edo irakurtzen dutenaren asmoa eta zentzu orokorra antzematen saiatuko dira.
- Bilatzen dutena hor dagoen ikusteko testua gainbegiratu egingo dute eta datu zehatzak aurkituko dituzte, helburua hori bada.
- Edukiaren inferentziak egitea ahalbidetuko duten hitz-gakoak hautemateko arreta jarriko dute.
- Pixkaka testuaren ideiak hautemango dituzte, hipotesiak eginez eta kontrastatuz.
- Ezagunak dituzten gaietan, esaldien esanahia hitz ezezagunen bidez inferituko dute.

- Ulermena arintzeko elementu ezberdinetan jarriko dute arreta, hizkuntzazkoetan zein hizkuntzaz kanpokoetan (irudiak, formatua, intonazioa, keinuak, tonua).
- Testuingurutik abiatuz, ulertu ez dituztenak ulertzen saiatuko dira.
- Hipotesiak kontrastatzeko berriz irakurriko dute edo entzungo dute.
- Oharrak idatziko dituzte, azpimarratu egingo dute edo eskema bat beteko dute, bai irakurri edo entzuten dutenean, eta baita ikasten dutenean ere.
- Ezagutzen ez dituzten edo zalantzazkoak dituzten hitzen esanahia asmatzen ahaleginduko dira:
 - Ezagutza orokorretatik edo beste hizkuntza batzuen ezagutzetatik, egoeratik edo irudietatik abiatuz.
 - Testuaren edo esaldiaren zentzu orokorretik abiatuz.
 - Testuingurutik abiatuz (errepikapenak, argipenak, adibideak, sinonimoen erabilera...)
 - Beste hizkuntza batzuen ezagutzatik abiatuz.
 - Gramatikako edo lexikoko gakoetatik abiatuz (hitz-familiak, gramatika-kategoriak, kokapena, etab.)
 - Lexikoa eta ohikoak diren esapideak jatorrizko hizkuntzakoekin alderatuko dituzte, batik bat inferentziak edo sasiadiskideak eman daitezkeenean.
- Estrategia pertsonalak erabiliko dituzte (ezagutzen ez dituzten hitz-gakoak idatzi edo azpimarratu gero haietara itzultzeko, hitz-gakoen eta lokailuen zerrendak egingo dituzte...)
- Hitz ezezagunen esanahiaren gaineko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabiliko dute.
- Ohartarazteko, hitza hartu eta emateko, elkarrizketa bat hasteko, jarraitzeko edo amaitzeko, esamolde egokiak erabiliko dituzte.
- Errutinak erabiliko dituzte, kodea aldatu egingo dute eta jakinarazi egingo dute, beste hizkuntza bateko hitzak egokituko dituzte, parafraseatu egingo dute, adibideak emango dituzte, beste modu batez adieraziko dute.
- Zailtasunak gizarte-estrategien bidez saihestuko dituzte: mintzakideari laguntzeko eskatuko diote, hobeto ez hitz egin edo ez idazteagatik barkamena eskatuko dute, keinuak edo galderak egingo dituzte, zerbait keinuez edo irudiz adieraziko dute.
- Elkarrekintzan jardungo dute, elkarrizketa zentratzeko norbaitek esandakoa errepikatu edo laburbildu egingo dute.
- Esandakoa koherentziaz antolatu eta lotuko dute.
- Aukeratutako testuaren formatuari egokituko diote.
- Hizkuntzan saioak eginez arriskuak barneratuko dituzte.

Jarduera zuzentzeko eta ebaluatzeko

- Ondo ulertu duten kontrastatu eta baieztatu egingo dute.
- Ulertu ez dutena adierazi egingo dute.
- Saioak eginez, mezua argitzeko eskatuko dute edo argitzen saiatuko dira.
- Hitz eta esamolde berriak buruz ikasiko dituzte eta ondo erabiltzen dituzten jakiteko erabili egingo dituzte.
- Mintzakideen laguntzaz gaizki-ulertuak zuzenduko dituzte.
- Erabili duten zalantzazko forma zuzena den ala ez jakiteko baieztatzeko eskatuko dute.
- Komunikazioa eteten denean beste taktika bat erabiliko dute.
- Hutsegiteen zergatia aztertu eta gainditzeko beste era batzuk saiatuko dituzte.
- Elkar ulertu dutela baieztatuko dute.
- Arretaz begiratuko dute testuak beren asmoak betetzen dituzten, ideiak koherentziaz antolatzen diren eta elkarri lotzen zaizkion.
- Aukeratutako testuaren formatuari egokitzen zaion begiratuko diote.

TREBETASUN BAKOITZA EBALUATZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK**TARTEKO MAILA - 1****IRAKURMENA**

Ikasleak ikastaldi honetako berriazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Komunikazio-asmoak eta funtsezko ideiak identifikatu, gai orokorren inguruko edo bere esparruari lotutako testu errazetan informazio nabarmena hauteman eta erregistro formala edo informala den bereizi –estandar baten barruan-, baldin eta edukiari buruzko hipotesiak egiten laguntzeko testuinguru egokia badute: hizkuntza ikasteko material egokiak, lan edo publizitate iragarkiak, liburuxka turistikoak eta komertzialak, argibide eta jarraibide errazak, espezializatuak ez diren informazio artikulatuak eta kontakizunak.

ENTZUMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berriazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Testuen komunikazio-asmoak eta ideia nagusiak hauteman (elkarrizketak, informazioak, jarraibideak, azalpena errazak, berbaldiak, elkarrizketak eta kontakizun laburrak) baldin eta edukiari buruzko hipotesiak egin ahal badira –egoeraren, testuinguruaren, irudien edo ezagutza orokorraren laguntzaz-, argi eta erregistro estandarrean emanak badira, eta berriro entzuteko edo zalantzak argitzeko aukera badago.

IDAZMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berriazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Testu errazen bidez eta gai orokorrei buruz, aurreikusitako atazak bete: galdetegiak, eskemak, gutun pertsonalak, testu sozial eta eskutitz formal estandarizatuak, jarraibideak, konpromisoak, lan-eskaerak, kontakizunak, deskribapenak eta aurkezpen errazak.

MINTZAMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berriazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Ohiko elkarrekintza gehienetan egoki eta eraginkortasunez parte hartu eta erantzun, eta gai ezagun sorta batean informazio aurkezpenak, azalpenak, deskribapenak eta kontakizun errazak egin, erregistro formal edo informal estandarrean.

IRAKURMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Gai orokorreko eta bere esparruko testu errazetan (lan edo publizitate iragarkiak, liburuxka turistiko eta komertzialak, jarraibideak, albisteak, kontakizunak, iritzi artikulua edo informazio-artikulu orokorrak) gaia, ideia nagusiak, puntu nabarmenak, arguetoaren haria eta ondorioak hauteman eta mota honetako hainbat testuak datoren informazioa xedatu.

ENTZUMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Edukiari buruzko hipotesiak egin. Hizketaldietan, informazioetan, jarraibide errazetan, argibide zehazetan, albisteetan, telefono mezuetan, kontakizunetan, gaien aurkezpenetan, eztabaidetan eta elkarrizketetan, gaia antzeman, komunikazio-asmoak, ideia nagusiak eta puntu nabarmenak identifikatu, informazio bereizlea xedatu, baldin eta gai orokorrekoak edo bere esparrukoak badira eta edukiari buruzko hipotesiak egin ahal badira –egoeraren, testuinguruaren, irudien edo ezagutza orokorraren laguntza-, argi eta erregistro formal edo informal estandarrean emanak badira, eta berriro entzuteko edo zalantzak argitzeko aukera badago.
- Gai orokorreko buruzko material grabatu gehien informazioaren edukia ulertu, argi, astiro eta hizkuntza estandarrean ahozkatuta badaude. Interes pertsonaleko telebista saio gehienak ulertu: elkarrizketak, hitzaldi laburrak, albistegiak... eta baita filmak ere, hizkuntza estandarrean badaude eta argi samar artikulatzen badira.

IDAZMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Gai orokorreko inguruan mota eta luzera ezberdineko testuak idatzi: eskutitzak eta mezu pertsonalak, gutun formal estandarizatuak, galdetegiak, txostenak, benetako edo asmatutako gertakizunen kontakizuna, deskribapenak, jarraibideak, eskaerak, ezagutzen diren gai buruz informazioa edota iritziak eta argudioak aurkeztu.

MINTZAMENA

Ikasleak ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, honako hau egin ahal duenean:

- Egoera eta gai sorta zabalean elkarrekintzan jardun eta mintzatu, harremanak izateko, iritziak edo informazio zehatza trukatzeko, bizipenak, sentimenduak eta gertaerak deskribatzeko eta kontatzeko, gai ezagun bat aurkezteko eta bere iritziak argudiatzeko.

AZKEN PROBAK

TARTEKO MAILA - 1

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren gehieneko iraupena: orubete eta 10 minutu. Irakurmeneko probak ordu beteko iraupena izango du eta ahozko probak 10 minutukoa, beste saio batean.
- Tarteko MAILA - 1eko azterketa gainditzeko ikasleak idatzizko eta ahozko probak gainditu beharko ditu, atal bakoitzean gutxienez 20 puntutik 12 lortuz. Atal batean lortutako puntuazioak ez du konpentsatuko bestean lortutakoa.

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketak guztira 2 ordu eta 40 minutuko iraupena izango du. Irakurmen, ulermen eta idazmen probetarako 2 ordu eta 20 minutu gordeko da eta saio bakar batean egingo dira. Ahozko probak 20 minutu iraungo du eta beste saio batean egingo da.
- Tarteko Mailako Ziurtagiria lortzeko, hautagaiak bi atalak gainditu beharko ditu. Gutxienezko emaitza: ikasleak gutxienez % 60ko puntuazioa eskuratu beharko du, bai idatzizko proban (irakurmena, entzumena, idazmena), 60 puntutik 36, bai ahozkoan, bai ahozkoan, 20 puntutik 12.
- Idatzizko probaren atalen batean % 60tik beherako puntuazioa lortuz gero, berau konpentsatzeko aukera egongo da baldin eta gutxiagoko emaitza hori atal bakarrean lortu bada eta emaitza % 50etik gorakoa bada.
- Ahozko proba ezin izango da konpentsatu eta gutxienez % 60 lortu beharko da: 20 puntutik 12.

IRAKURMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu - % 25	12 puntu	50 minutu

Helburua	Ager daitezkeen testu motak	Ager daitezkeen ataza motak
----------	-----------------------------	-----------------------------

<p>1. Argudiozko testu batean, puntu esanguratsuak, konklusioak eta argudioak identifikatu.</p> <p>2. Testu bat xeheki ulertu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mezuak (SMSak, posta elektronikoak, gutunak), pertsonalak edo sozialak, informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak trukatzeko. • Oinarrizko gutun formalak. • Informazio eta azalpen txostenak. • Laneko iragarkiak. • Jarraibideak eta araubideak. • Iragarki publikoak eta oharak. • Iragarki-liburuxkak. • Publizitate iragarkiak. • Liburuxkak eta gida turistiko eta komertzialak. • Txosten arruntak. • Aisialdirako gidak, katalogoak. • Web orriak. • Errezetak. • Egunkari eta aldizkariak: ezagunak diren gaien inguruko albisteak, artikulua ez espezialduak, erreportaiak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, "zuzendariari eskutitzak". • Biografiak • Horoskopoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzuna: aukera ugariak • Egia-gezurra • Informazio-transferentzia • Antolamendu jarduerak • Lotu (egoera edo gaintitulua eta dagokion testua lotu / esaldietako bat zein testuri dagokion hautatu) • hutsuneak bete (esaldiak hutsunean ezarri) / hitz zerranda batean emandako hitzez hutsuneak bete eta zenbakidun laukitxo batera eraman / testua bete, hutsuneetan aukera zuzena ipinita / testua osatu, hutsuneetan hitz bakarria ipinita) • erantzun bakarreko galdera irekiak
--	--	---

ENTZUMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 puntu - % 25	12 puntu	30 minutu

Helburua	Ager daitezkeen testu motak	Ager daitezkeen ataza motak
<p>1. Bere intereseko edo gai orokorreko testu gehienek edukia ulertu, argi ahoskatuta badaude eta hizkuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez-aurreko elkarrizketa informalak • Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan • Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatu eta emateko, arazo zehatzak 	<ul style="list-style-type: none"> • erantzuna: aukera ugariak • egia-gezurra • Informazio-transferentzia • harremandu/lotu

<p>estandarrean badira</p> <p>2. Eztabaida, hitzaldi eta parte hartzeen informazio zehatza eta xehetasunak ulertu nahiz eta luzeak izan; gauza kontakizun eta jarraibideekin, argiak badira eta erregistro estandarrean badaude.</p>	<p>konpontzeko (jardun administratibo eta komertzial errazak, erreklamazioak, itzultzeak) trukeak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mezuak, deskribapenak eta kontakizunak errepikatu eta helarazi • Lan-taldeetan eta elkarrizketetan elkarrekintzak • Ezagunak diren gaien inguruko eztabaidak, hizkuntza estandarrean • Ezagunak dituen kultura-alarreko edo gaurkotasuneko gaien inguruko iradokizunak, iritziak eta arrazoibideak • Jarraibideak, aholkuak eta argibideak • Aurkezpenak • Gai orokorreko buruzko hitzaldiak, argi egituratuak. 	<ul style="list-style-type: none"> • antolamendu jarduerak • erantzun bakarreko galdera irekiak • ohar-eskema: hutsuneak bete
--	---	--

IDAZMENA:

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 + 15) puntu - % 25	12 puntu	60 minutu

Helburua	Ager daitezkeen testu motak	Atazak
----------	-----------------------------	--------

<p>1. Informazioa eskatzeko, emateko edo baieztatzeko, edo bizipenak, interesak, erreakzioak, sentimenduak eta gertakizunak deskribatzeko testuak idatzi</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Artikulu labur eta errazak eguneroko gai buruz, eskolako egunkari eta aldizkarietarako. • Ohikoak diren gertakizunei buruzko txosten laburrak • gai zehatzei buruz iritzia eman • Jardueren kontakizun laburrak • Eguneroko gaien, asmoen edo gertakizun zehatzen deskribapen errazak • Gutun pertsonalak • gutun formalak (lan-eskaerak, aurkezpen-txartelak, erreklamazio gutunak) • inprimakiak (instantziak, erreklamazioak, eskaerak) 	<p>1. testu laburrago bati erantzunez edo jarraibideei s idazki bat egin</p> <ul style="list-style-type: none"> • Artikulu labur eta erraza bere intereseko gairen bati buruz eskolako egunkari eta aldizkarietarako. <ul style="list-style-type: none"> ○ gutuna / mezu elektronikoa pertsonala / mezu elektronikoa formal laburra, honakoa jaso dezakeen <ul style="list-style-type: none"> ▪ Jardueren kontakizun laburra ▪ gai zehatz bati buruzko iritzia ▪ eguneroko gai baten deskribapen erraza ▪ Gertakizun zehatz bati buruzko deskribapena (bidaia, etab.). ▪ asmoen eta adostasunen deskribapena <p>180 hitz inguru</p> <p>PUNTUAZIOA: 15</p>
<p>aginduak eta informazioa eman edo helarazi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mezu elektronikoa laburrak • ohar eta mezu elektronikoa errazak, bertan informazioa, jarraibideak eta argibideak dituztela 	<p>2. Ohar, iragarki edo mezu erraza, informazio zehatz eta puntualarekin</p> <p>180 hitz inguru</p> <p>PUNTUAZIOA: 5</p>

MINTZAMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (8 + 12) puntu - % 25	12 puntu	20 minutu

Helburua	Testu motak	Atazak
1. Labur azalduko gertakizun, egoera edo albiste baten informazioa eman edo helarazi. 2. Ikuspuntua eman	Beste ikasle bati edo batzuei zuzendutako bakarrizketa.	Mintzakideari/ei zuzenduz, ikasleak azalduko zaion gai bati erantzun behar dio (testu laburra, argazkia edo komentatutako grafikoa) eta bere ikuspuntua aurkeztu behar du: zeren ingurukoa den, zer esaten duen... Ataza betetzeko informazioa ulertzeko utziko zaion denbora: 2 minutu
2. Iritziak, planak, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta defendatu, eta behar diren azalpenak, argudioak eta iradokizunak eman; aukerak alderatu eta egiaztatu. Konfiantza dezenterekin ohiko kontuen inguruko informazio zehatza lortu eta elkarri eman.	Beste ikasle batekin/batzuekin elkarrizketa.	Ikasleek haien artean hitz egingo dute, elkarri galdetu eta erantzungo diote, informazioa elkatrutzeko hitza hartu eta emango dute, iritzia emango dute, arazo baten arrazoiak azalduko dituzte, aukerak alderatu eta egiaztatuko dituzte. Ikasleek ataza burutzeko behar duten informazioarekin orria edo txartela jasoko dute. Ataza betetzeko informazioa ulertzeko edukiko duten denbora: 2 minutu

IDAZMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	ZERA NEURTZEN DA:
Egokitzapena eta komunikazio-eraginkortasuna	Zera neurtzen da: <ul style="list-style-type: none"> ○ ulergarritasuna. ○ eskatu zaizkien funtzioak bete izana. ○ hartzailearen, helburuaren eta egoeraren arabera, testua erregistro formal edo informal estandarrari egokitzea.
Kohesioa:	Informazioaren eta ideien antolaketa ebaluatzeko kontuan hartuko dira <ul style="list-style-type: none"> ● diskurtso-lokailuak egoki erabiltzea. ● erreferentzialtasun mekanismoak. ● puntuazio-zeinuak.
Hiztegia	zera neurtzen da: <ul style="list-style-type: none"> ● elementu lexikoak egoki eta zuzen erabiltzea. ● esamolde idiomatikoak zuzen eta egoki erabiltzea. ● testua errepikakorra suerta ez dadin baliabide lexikal nahikoa erabiltzea.
Zuzentasuna	Ohiko funtzioak betetzeko mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak neurtuko dira,

- perpausen antolaketa: hitzen ordena eta komunztadura.
- elementu morfologikoak egoki erabiltzea (konjugazioa, deklinabidea).
- aditz-denborak eta aspektuak zuzen erabiltzea.
- egitura sintagmatikoen erabilera (aditz determinatzaileak, substantiboak eta adjetiboak).
- ortografia.

MINTZAMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	ZERA NEURTZEN DA:
Egokitzapena eta komunikazio-eraginkortasuna	Zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none"> ○ ulergarritasuna. ○ eskatu zaizkien funtzioak bete izana. ○ hartzailearen, helburuaren eta egoeraren arabera, erregistroa egokitzea.
Kohesioa eta hitz-jarioa	Bakarrizketan zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren eta ideien antolaketa • lokailuak eta erreferentzialtasuna zuzen erabiltzea (juntagailuak, izenordainak, etab.) • elkarrizketan komunikatu nahi dena adierazteko adinako erritmo erregularrez hitz egiteko gaitasuna • elkarrekintzarako estrategiak erabiltzea, hala nola hitza hartzea, mintzakidearekin batera aritzea, argipenak eskatzea • komunikazioa ez mozteko erritmo aski erregularrez aritzeko ahalmena
Lexikoa	Zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none"> • hiztegia eta egiturak erabiltzerakoan ugaritasuna eta zehaztasuna • estrategia orekatzaileak erabiltzea
Zuzentasuna	ohiko funtzioak betetzeko mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak kontrolatzeko gaitasuna neurtuko da, hala nola <ul style="list-style-type: none"> • esaldien egitura (hitzen ordena). • hitzen amaierak (morfologia). • aditz-formak (denborak eta aspektuak)
Ahoskera / Intonazioa	Zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none"> • Balio fonologikoen eta horien esanahizko funtzioaren kontrol egokia. • intonazioa: ikasten den hizkuntzaren estandarretarantz egokitzea.

